



**LESAKAKO UDALA (NAFARROA)  
AYUNTAMIENTO DE LESAKA (NAVARRA)**

**UDALEKO OSOKO BILKURAREN  
APARTEKO BILERA**

**2019ko uztailaren 12a**

Lesakako Herriko Etxeko Bilera Aretoan, bi mila eta hemeretzigarren urteko uztailaren hamabian, ortzirala, ilunabarreko zazpietan, udaleko Osoko Bilkura bildu da, aparteko bileran eta lehenengo deialdian, Ladis Satrústegui Alzugaray alkate jaunaren lehendakaritzapean, eta ondoko zinegotzi hauek etorri direla: Maitane Rodríguez Etxabide, Iban Garro Alzuri, Mainer Arrieta Tapia, Iratxe Batiz Barzena, Mattin Etxabide Gartzia, José Luis Echegaray Andueza, Ione Fagoaga Echarte, Iban de Prado Etxepeteleku, Esteban Irazoqui Irazoqui eta José María Portu Ochoteco jaun-andreak.

Idazkari lanetan, M. Jose Larrayoz Ariztegui andrea ari da, udaleko idazkaria.

Alkate jaunaren aginduz bilkura hasi da, eta, deialdiaren ordenari jarraituz, ondoko gai hauei buruz aritu dira:

**1 - AZKEN BI BILKUREI  
DAGOZKIEN AKTEN ONESPENA**

Osoko Bilkurak, aho batez, onartu du, 2019ko ekainaren 15eko akta.

Osoko Bilkurak, aho batez, onartu du,

**SESIÓN EXTRAORDINARIA DEL PLENO  
DEL AYUNTAMIENTO**

**12 de julio de 2019**

En el Salón de Sesiones del Ayuntamiento de la Villa de Lesaka, siendo las diecinueve horas del viernes, doce de julio de dos mil diecinueve, se reúne, en sesión extraordinaria y a primera convocatoria, el Pleno municipal, presidido por el señor alcalde don Ladis Satrústegui Alzugaray y con la asistencia de los siguientes concejales: doña Maitane Rodríguez Etxabide, don Iban Garro Alzuri, doña Mainer Arrieta Tapia, doña Iratxe Batiz Barzena, don Mattin Etxabide Gartzia, don José Luis Echegaray Andueza, doña Ione Fagoaga Echarte, don Iban de Prado Etxepeteleku, don Esteban Irazoqui Irazoqui y don José María Portu Ochoteco.

Actúa como secretaria, el de la Corporación, doña M. José Larrayoz Ariztegui.

Por disposición del señor alcalde se da comienzo a la sesión en la que, siguiendo el orden de la convocatoria, son tratados los siguientes asuntos:

**1 - APROBACION DE LAS ACTAS  
CORRESPONDIENTES A LAS DOS  
ÚLTIMAS SESIONES.**

El Pleno aprueba, por unanimidad, el acta de la sesión celebrada el día 15 de junio de 2019.

El Pleno aprueba, por unanimidad, el acta de



**LESAKAKO UDALA (NAFARROA)  
AYUNTAMIENTO DE LESAKA (NAVARRA)**

2019ko ekainaren 20ko akta, aldaketa honekin:

-Honela dioen tokian: "Oilartegi S.L.-ko Administrazio-Kontseilua: Mattin Etxabide Gartzia, Ladis Satrústegui Alzugaray eta beste bi kide, Geroa Bai-ek izendatutakoak.

Honela behar du: "Oilartegi S.L.-ko Administrazio-Kontseilua: Mattin Etxabide Gartzia, Ladis Satrústegui Alzugaray, Maitane Rodríguez Etxabide eta beste bi kide, Geroa Bai-ek izendatutakoak.

**2 - ORDEZKARIAK IZENDATU  
KONTSEILU SEKTORIALEAN ETA  
ORGANO KOLEGIATUETAN.**

Alkate jaunak proposamen berria egin du Udaleko ordezkariak izendatzeko beharrezkoak diren organo eta erakundeetan. Aipatu du hasierako proposamena aldatu dela kontsentsua lortzeko eta bi taldeak elkarlanean aritzeko. Hurrengoa da:

- Musika Eskolako Kontseilu Sektoriala: Ladis Satrústegui Alzugaray, Maitane Rodríguez Etxabide, Iban de Prado Etxepeteleku eta Jose Luis Echegaray Andueza.

- Euskara zinegotzia: Maitane Rodríguez Etxabide.

- Euskara Mankomunitatea: Maitane Rodríguez Etxabide eta Jose Luis Echegaray Andueza.

- Oilartegi S.L.-ko Administrazio-Kontseilua: Ladis Satrústegui Alzugaray, Mattin Etxabide Gartzia, Maitane Rodríguez Etxabide,

la sesión celebrada el día 20 de junio de 2019 con la siguiente modificación:

-Donde dice: - Consejo de Administración de Oilartegi S.L.: Mattin Etxabide Gartzia, Ladis Satrústegui Alzugaray, y los dos miembros que designe Geroa Bai.

Debe decir: - Consejo de Administración de Oilartegi S.L.: Mattin Etxabide Gartzia, Ladis Satrústegui Alzugaray, Maitane Rodríguez Etxabide y los dos miembros que designe Geroa Bai.

**2-NOMBRAMIENTO DE  
REPRESENTANTES DEL CONSEJO  
SECTORIAL Y ORGANOS COLEGIADOS.**

El Sr. Alcalde formula nueva propuesta para nombrar a los representantes del Ayuntamiento en los órganos y entidades en que resulta preciso. Manifiesta que se ha modificado la propuesta inicial en aras a obtener un consenso y trabajar conjuntamente entre ambas formaciones Es la siguiente:

- Consejo Sectorial de la Escuela de Música: Ladis Satrústegui Alzugaray, Maitane Rodríguez Etxabide, Iban de Prado Etxepeteleku y José Luis Echegaray Andueza.

- Concejal de euskera: Maitane Rodríguez Etxabide.

- Mancomunidad de Euskera: Maitane Rodríguez Etxabide y José Luis Echegaray Andueza.

- Consejo de Administración de Oilartegi S.L.: Ladis Satrústegui Alzugaray, Mattin Etxabide Gartzia, Maitane Rodríguez Etxabide, Iban de



**LESAKAKO UDALA (NAFARROA)**  
**AYUNTAMIENTO DE LESAKA (NAVARRA)**

Iban de Prado Etxepeteleku eta Jose Luis Echeagaray Andueza.

- Irain Eskola Publikoko Eskola Kontseilua: Ladis Satrústegui Alzugaray.

- Tantirumairu Ikastolako Zuzendaritza Batzordea: Ione Fagoaga Echarte.

- Arkupe Elkarteko Zuzendaritza: Jose Maria Portu Ochoteco.

- Osasun Kontseilua: Iratxe Batiz Barcena.

- Andra Mari Zaharretzeko Gobernu-Batzordea. Udaleko ordekarriak honako hauek izanen dira: Ladis Satrústegui Alzugaray, Iban Garro Alzuri, Jose Maria Portu Ochoteco eta Esteban Irazoqui Irazoqui.

- Suhiltzaile Boluntarioen Batzordea: Iban de Prado Etxepeteleku.

- Hondakin Solidoen Mankomunitateko Batzorde Iraunkorra: Iban Garro Alzuri eta Iban de Prado Etxepeteleku.

- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea: Iratxe Batiz Barcena eta Ione Fagoaga Echarte.

- Berdintasun zinegotzia: Iratxe Batiz Barcena.

- Ordezkarria Baztan-Bidasoako Garapen Batzordean: Ladis Satrústegui Alzugaray.

- Ordezkarria CEDERNA-GARALUR Elkartean: Ladis Satrústegui Alzugaray.

- Ordezkarria ANIMSA: Ladis Satrústegui Alzugaray.

- Ordezkarria FORESNA: Ladis Satrústegui Alzugaray.

Prado Etxepeteleku y José Luis Echeagaray Andueza.

- Consejo Escolar de Colegio Público Irain: Ladis Satrústegui Alzugaray.

- Junta Directiva de la Ikastola Tantirumairu: Ione Fagoaga Echarte.

- Directiva de la Sociedad Arkupe: José María Portu Ochoteco.

- Consejo de Salud: Iratxe Batiz Barcena.

- Junta de Gobierno de la Residencia Andra Mari. Los representantes del Ayuntamiento serán Ladis Satrústegui Alzugaray, Iban Garro Alzuri, José María Portu Ochoteco y Esteban Irazoqui Irazoqui.

- Junta de Bomberos Voluntarios: Iban de Prado Etxepeteleku.

- Comisión Permanente de la Mancomunidad de Residuos Sólidos: Iban Garro Alzuri e Iban de Prado Etxepeteleku.

- Mancomunidad de Servicios Sociales de Base: Iratxe Batiz Barcena y Ione Fagoaga Echarte.

- Concejala de Igualdad: Iratxe Batiz Barcena.

- Representante en la Comisión de desarrollo de Baztán-Bidasoa: Ladis Satrústegui Alzugaray.

- Representante ante la Asociación CEDERNA-GARALUR: Ladis Satrústegui Alzugaray.

- Representante ante ANIMSA: Ladis Satrústegui Alzugaray.

- Representante ante FORESNA: Ladis Satrústegui Alzugaray.



**LESAKAKO UDALA (NAFARROA)**  
**AYUNTAMIENTO DE LESAKA (NAVARRA)**

- Ordezkaría Nafarroako Udala eta Kontzejuen Federazioan: Ladis Satrustegui Alzugaray.

-Ordezkaría Nafarroako Antzoki Sarean; Ladis Satrustegui Alzugaray.

Alkate jaunak adieraziakoa ikusirik, José Luis Echegaray jaunak dio proposamena itxia dela eta plataforma itxia dela.

Gaineratu du bere taldeak ez duela onartzen ez direlako kargu guztiak agertzen eta batzuk izkutu direla aurreko proposamenetik.

Iban Garrok eskatu dio zehaztea zein kargu izkutu diren.

Jose Luis Echegaray Anduezak erantzun du euskara zinegotziarena berria dela. Erran du aurreko eta oraingo proposamenen artean, kargu batzuk desagertu direla. Galdetu du euskararen planari buruz eta bere izendapena, ekainaren 10ean bidalia.

Alkateak erantzun dio egun horretan EH Bildu ez zegoela alkatetzan. Eskatu du seriotasuna eta ez nahasteko aurreko proposamenak. Eskatutakoa aldatu dela gaineratu du eta borondate ona dagoela gehiengo duen taldearen aldetik, Geroa Bai taldeari eskatu zaiola bere proposamena eta ez dela jaso. Eskatzen du gaurko proposamena lantzea.

Jose Luis Echegaray Anduezak eskatu du ekainaren 10ean EH Bildu bidalitako proposamena argitzea. Desberdinak direla biek. Gure proposamena aurkeztu dugu baino ez negoziatu, plataforma itxia da; horrela ezin da lan egin.

Martin Etxabide Gartzia adierazi du ekainaren 10eko posta elektronikoan akats bat izan

- Representante ante la Federación Navarra de Municipios y Concejos: Ladis Satrustegui Alzugaray.

-Representante ante la Red de Teatro de Navarra: Ladis Satrustegui Alzugaray.

A la vista de lo indicado por el señor Alcalde, don José Luis Echegaray señala que la propuesta está cerrada y es una plataforma cerrada. Añade que su grupo no lo aprueba dado que no constan todos los cargos y ha desaparecido alguno con respecto a la anterior propuesta.

Iban Garro le solicita especifique qué cargo se refiere cuando dice que ha desaparecido.

José Luis Echegaray Andueza le dice que la concejalía de euskara es nuevo. Añade que entre la primera propuesta y la actual han desaparecido algunos cargos. Pregunta sobre el plan de euskara y su nombramiento enviado el día 10 de junio

El Alcalde le dice que en esa fecha todavía EH Bildu no estaba en la alcaldía. Solicita seriedad y que no se mezclen anteriores proposiciones. Añade que se ha modificado lo solicitado. Que hay buena voluntad por parte del partido mayoritario, que se ha pedido la propuesta de Geroa Bai y que no se ha recibido. Pide que se trabaje con la propuesta de hoy.

José Luis Echegaray Andueza solicita se aclare la propuesta de EH Bildu del día 10 de junio, recibida por email. Hay diferencia entre ambas. “Hemos presentado nuestra propuesta pero no se ha negociado, es una plataforma cerrada; así no se puede trabajar”, dice.

Martin Etxabide Gartzia señala que en el email del día 10 de junio hubo un error y que se



## LESAKAKO UDALA (NAFARROA) AYUNTAMIENTO DE LESAKA (NAVARRA)

zela eta lana aurreratzeko bidali zela. Balio duena ekainaren 15ean egindako bileran hartutako akordioa da. Gaineratu du bere taldearen borondatea negoziatzea dela eta hori dela falta dela Geroa Bai taldean. Azkeneko proposamena gaur egindakoa da. Erran du horrelako proposamenik ez dela eman Euskal Herri osoan, EH Bildu taldeak irabazi dituela hauteskundeak eta ezin dela eman proposamen hoberik. Azken urteetan ez da horrelakorik gertatu Lesakan. “Onartzen duzue proposamena?”, galdetu die.

Jose Luis Echegaray Anduezak erantzun dio “bertze herritan ez dela horrela gertatzen Bildu taldea bakarra delakoz”. Adierazi du egindako bileran proposamen zehatza egin zela. Gaineratu du “kolaboratu nahi dutela”.

Mattin Etxabide Gartzia erran du proposamenaren xedea elkarlanean aritzea dela eta bi taldeak inplikatzeko gaitan.

Jose Luis Echegaray Anduezak gehitu du EH Bildu taldeak irabazi dituela hauteskundeak eta ez dugula onartzen aurkeztutako proposamena. Ez da negoziatziorik, inposizioa baizik.

Alkateak erran du bere taldeak aurkeztu duela euren proposamena; Gero Bai taldeak ez duela proposamenik aurkeztu. Eskatzen du bozketaren egitea.

Geroa Bai taldeak adierazi du bere proposamena. Alkateak errandakoak mantentzen dituzte hurrengo organoetan izan ezik:

- Euskara Mankomunitatea: EH Bilduko bi zinegotzi.

- Irain Eskola Publikoko Eskola Kontseilua:

remitió por adelantar el trabajo. Lo que vale es el acuerdo de la sesión celebrada el día 15 de junio. Añade que hay voluntad por su grupo para negociar, lo que falta en el grupo de Geroa Bai. La última propuesta es la de hoy. Manifiesta que una propuesta como la de hoy no se da en toda Euskal Herria. Las elecciones las ha ganado EH Bildu y no puede haber una propuesta mejor. En los últimos años no ha ocurrido esto en Lesaka, “¿aprobáis la propuesta?”, pregunta.

José Luis Echegaray Andueza le responde que en otras localidades no ocurre esto porque Bildu manda sólo. Señala que en la reunión celebrada se trató una propuesta concreta. “Queremos colaborar”, añade.

Mattin Etxabide Gartzia añade que el objetivo de la propuesta es el de trabajar juntos y que ambos partidos se impliquen en las distintas áreas.

José Luis Echegaray Andueza añade que EH Bildu ha ganado las elecciones y “no aprobamos la propuesta presentada. No hay negociación, sino imposición”.

El Alcalde señala que su grupo ha presentado su propuesta y que el grupo Geroa Bai no ha presentado la suya. Propone que se vote la misma.

El grupo Geroa Bai señala su propuesta. Mantiene los señalados por el Alcalde para cada partido excepto en los siguientes órganos:

-Mancomunidad de Euskara de Bortzirriak: dos concejales de EH Bildu.

-Consejo Escolar del Colegio Público Irain:



**LESAKAKO UDALA (NAFARROA)  
AYUNTAMIENTO DE LESAKA (NAVARRA)**

Geroa Bai taldeko zinegotzi bat.

- Tantirumairu Ikastolako Zuzendaritza Batzordea: EH Bildu taldeko zinegotzi bat.

- Arkupe Elkarteko Zuzendaritza: EH Bildu taldeko zinegotzi bat.

- Suhiltzaile Boluntarioen Batzordea: EH Bildu taldeko zinegotzi bat.

- Hondakin Solidoen Mankomunitateko Batzorde Iraunkorra: Geroa Bai taldeko bi zinegotzi.

-Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea: EH Bildu taldeko bi zinegotzi.

Jose Luis Echegaray Anduezak erran du lehen mailako "alkaldada" bat dela, eta ezin dela karguak izendatu eta erabaki alde bat bakarrarekin.

Mattin Etxabide Gartziak erran du hau ez duela alkateak erabakitzen, Plenoak baizik; gehitu du Geroa Bai taldearen proposamenari irekiak daudela baino gai honek epe bat duela erabakitzeko, banaketa orekatu bat nahi dela baino Geroa Bai taldeak ez duela onartu.

Eztabaidatu ondoren eta EH Bildu-ko sei zinegotzien aldeko botoekin eta Geroa Bai-eko bortzen kontrako botoekin, Osoko bilkurak alkate jaunak aurkeztutako proposamena onartu du.

Alkateak adierazi du gaia bukatu behar dela, akordio bat lortzeko aukera eman dela lortu gabe, eta Geroa bai taldeak karguak eta izenak emateko aukerari ez diola erantzunik eman.

un concejal de Geroa Bai.

-Junta Directiva de la Ikastola Tantirumairu: un concejal de EH Bildu.

-Directiva de la Sociedad Arkupe: un concejal del EH Bildu.

-Junta de Bomberos Voluntarios: un concejal de EH Bildu.

-Comisión Permanente de la Mancomunidad de Residuos Sólidos: dos concejales de Geroa Bai.

- Mancomunidad de Servicios Sociales de Base: dos concejales de EH Bildu.

José Luis Echegaray Andueza manifiesta que esto es una "alkaldada" de primera división, que no se pueden nombrar y decidir los cargos unilateralmente.

Mattin Etxabide Gartzia dice que no lo decide el alcalde sino el Pleno; añade que estamos abiertos a la propuesta de Geroa Bai pero que esto tiene un plazo para decidir, que hemos querido un reparto equitativo pero que el grupo Geroa Bai no lo ha aprobado.

Tras el debate y con el voto a favor de los seis concejales de EH Bildu y los votos en contra de los cinco de Geroa Bai, el Pleno aprueba la propuesta realizada por el señor alcalde.

El alcalde manifiesta que el asunto debe zanjarse ya, que se ha dado la opción a llegar a un acuerdo pero que no ha habido, ya que a pesar de haber dado la opción para proponer los cargos y nombres, no se ha dado por el grupo Geroa Bai.



**LESAKAKO UDALA (NAFARROA)  
AYUNTAMIENTO DE LESAKA (NAVARRA)**

**HASIERAKO ONESPENA (2/2019 ZK. ESPEDIENTEA)**

Uztailaren 2an kontu-hartzaileak eginiko txostenean, adierazten du beharrezkoa dela transferentzia bat egitea Udalaren 2019. urterako aurrekontuan.

Jasotzen du 30.797,11 €-tako hornidura kontusail batera. Berau, Lesakako Kultur Etxean gindako obretan egiteko erabiliko da.

Aipaturiko txostenean adierazitakoa ikusita, eta kontuan hartuta Nafarroako Toki Administrazioaren Foru-legearen 271. artikuluan ezarritakoa (lege hori Nafarroako toki-araubidea eguneratzeko 11/2004 Foru-legeak aldatu zuen), Udalbatzak, aho batez, honako hau erabaki du:

1.- Hasiera batean onestea aurrekontua aldatzeko 2/2019 espedientea.

2.- Espediente hori jendaurrean edukitzea hamabortz egun baliodunean, aldeztuz aitzinetik Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Herriko Etxeko iragarki oholean, herritarrek edo interesdunek aztertu ahal dezaten eta egoki iruditzen zaizkien erreklamazioak egin ditzaten.

**4- AURREKONTUAREN ALDAKETA:  
HASIERAKO ONESPENA (3/2019 ZK. ESPEDIENTEA)**

Uztailaren 3an kontu-hartzaileak eginiko txostenean, adierazten du beharrezkoa dela transferentzia bat egitea Udalaren 2019. urterako aurrekontuan.

Jasotzen du 60.399,40 €-tako hornidura kontusail batera. Berau, Alkaiaga auzoko

**PRESUPUESTO DEL EJERCICIO 2019  
(EXPEDIENTE 2/2019): APROBACIÓN INICIAL.**

En un informe emitido por el interventor con fecha 2 de julio, señala la necesidad de realizar una transferencia en el Presupuesto del Ayuntamiento para el año 2019.

Contempla la dotación de 30.797,11 € a una partida. La misma se destinará a las obras ejecutadas en la Casa de Cultura de Lesaka.

A la vista de lo señalado en el citado informe y teniendo en cuenta lo establecido por el artículo 271 de la Ley Foral de Administración Local de Navarra (modificada por la Ley Foral 11/2004, para la actualización del régimen local de Navarra), el Pleno acuerda por unanimidad:

1º Aprobar inicialmente el expediente de modificación presupuestaria 2/2019.

2º Someter el mismo a exposición pública, por periodo de quince días hábiles, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento, a fin de que los vecinos o interesados puedan examinarlo y formular las reclamaciones que estimen oportunas.

**4- MODIFICACIÓN DEL  
PRESUPUESTO DEL EJERCICIO 2019  
(EXPEDIENTE 3/2019): APROBACIÓN INICIAL.**

En un informe emitido por el interventor con fecha 3 de julio, señala la necesidad de realizar una transferencia en el Presupuesto del Ayuntamiento para el año 2019.

Contempla la dotación de 60.399,40 € a



**LESAKAKO UDALA (NAFARROA)  
AYUNTAMIENTO DE LESAKA (NAVARRA)**

saneamendu obrak egiteko erabiliko da.

Aipaturiko txostenean adierazitakoa ikusita, eta kontuan hartuta Nafarroako Toki Administrazioako Foru-legearen 271. artikuluan ezarritakoa (lege hori Nafarroako toki-araubidea eguneratzeko 11/2004 Foru-legeak aldatu zuen), Udalbatzak, aho batez, honako hau erabaki du:

1.- Hasiera batean onestea aurrekontua aldatzeko 3/2019 espedientea.

2.- Espediente hori jendaurrean edukitzea hamabortz egun baliodunean, aldeztatik Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Herriko Etxeko iragarki oholean, herritarrek edo interesdunek aztertu ahal dezaten eta egoki iruditzen zaizkien erreklamazioak egin ditzaten.

**5- AURREKONTUAREN  
ALDAKETA: HASIERAKO ONESPENA  
(4/2019 ZK. ESPEDIENTEA)**

Uztailaren 3an kontu-hartzaileak eginiko txostenean, adierazten du beharrezkoa dela transferentzia bat egitea Udalaren 2019. urterako aurrekontuan.

Jasotzen du 18.888,19 €-tako hornidura kontusail batera. Berau, Irain eskolako komunak berritzeko obretan erabiliko da.

Aipaturiko txostenean adierazitakoa ikusita, eta kontuan hartuta Nafarroako Toki Administrazioako Foru-legearen 271. artikuluan ezarritakoa (lege hori Nafarroako toki-araubidea eguneratzeko 11/2004 Foru-legeak aldatu zuen), Udalbatzak, aho batez, honako hau erabaki du:

una partida. La misma se destinará a las obras de saneamiento del barrio de Alkaiaga.

A la vista de lo señalado en el citado informe y teniendo en cuenta lo establecido por el artículo 271 de la Ley Foral de Administración Local de Navarra (modificada por la Ley Foral 11/2004, para la actualización del régimen local de Navarra), el Pleno acuerda por unanimidad:

1º) Aprobar inicialmente el expediente de modificación presupuestaria 3/2019.

2º) Someter el mismo a exposición pública, por periodo de quince días hábiles, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento, a fin de que los vecinos o interesados puedan examinarlo y formular las reclamaciones que estimen oportunas.

**5- MODIFICACIÓN DEL  
PRESUPUESTO DEL EJERCICIO 2019  
(EXPEDIENTE 4/2019): APROBACIÓN  
INICIAL.**

En un informe emitido por el interventor con fecha 3 de julio, señala la necesidad de realizar una transferencia en el Presupuesto del Ayuntamiento para el año 2019.

Contempla la dotación de 18.888,19 € a una partida. La misma se destinará a las obras de reforma de los baños de la escuela Irain.

A la vista de lo señalado en el citado informe y teniendo en cuenta lo establecido por el artículo 271 de la Ley Foral de Administración Local de Navarra (modificada por la Ley Foral 11/2004, para la actualización del régimen local de Navarra), el Pleno acuerda por unanimidad:





**LESAKAKO UDALA (NAFARROA)**  
**AYUNTAMIENTO DE LESAKA (NAVARRA)**

1.- Hasiera batean onestea aurrekontua aldatzeko 4/2019 espedientea.

2.- Espediente hori jendaurrean edukitzea hamabortz egun baliodunean, aldez aitzinetik Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Herriko Etxeko iragarki oholean, herritarrek edo interesdunek aztertu ahal dezaten eta egoki iruditzen zaizkien erreklamazioak egin ditzaten.

Aipaturiko eguneko ilunabarreko zortziak direla, eta eztabaidatzeko gai gehiago ez dagoenez, alkate jaunak akabatutzat eman du bilera. Nik, idazkariak, egiaztatu egiten dut.

1º) Aprobar inicialmente el expediente de modificación presupuestaria 4/2019.

2º) Someter el mismo a exposición pública, por periodo de quince días hábiles, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento, a fin de que los vecinos o interesados puedan examinarlo y formular las reclamaciones que estimen oportunas.

Siendo las veinte horas del día de la fecha, y no habiendo más asuntos que tratar, el señor Alcalde da por finalizada la sesión. De todo ello yo, como Secretaria, certifico.

